





1. Argibide orokorrak

Biztanleria (2016):	13.864 biztanle
Zabalera:	146,10 km ²
Nafarroa2000 zer eskualdetakoa:	Erriberagoiena (ikus mapa)
Udalerrak:	Andosilla, Azagra, Cárcar, San Adrián

2. Komunitatea eta osasuna

San Adriango eskualde oinarritzko biztanleriaren piramideak erraboi itxura du; 35etik 60 urte bitarteko biztanleak dira nagusi, nahiz eta oinarrian talde franko agertzen diren. San Adriango eskualde oinarritzkoa da 14-19 urteko amak dituzten jaioberrien tasa (%10,6), muturreko pobrezia arriskuaren tasa (%11,4) eta bakarrik bizi diren 80 urte edo gehiagoko gizonezkoen etheen portzentajea (%16,3) handienak dituztenetarik.

San Adriango emaitza okerrenak agertzen dituzten eskualde oinarritzkoen %25en artean artean dago, diabetesa diagnostikatu duten pertsonen prebalentziari dagokionez (%7,8), emakumezkoen antsiolitiko eta antidepresiboaren kontsumoari dagokionez (%19,2), urteko kontrol erregistratu duten deabetiko eta hipertentsiodunen portzentajeari dagokionez (%61,8 eta %55,7, hurrenez hurren) eta emakumezko jaioberrien bizi itxaropenari dagokionez (85,1 urte).

Nafarroa2000 zonifikazioan San Adriango eskualde oinarritzkoa Erriberagoieneko eskualdean baitago, aurrekoek gain, ondoko orrialdeko irudian agertzen dira Erriberagoienari dagozkion adierazleak, bizimoduak, enpleguak eta ikasketa maila buruzko inkestetatik aterak. Erriberagoieneko eskualdean emaitza hoberenak agertzen dira gazteen alkohol kontsumo intentsiboari dagokionez (%28,2). Kontrara, eskualde honek emaitza okerrenak agertzen ditu tabakoaren eguneroko kontsumoari dagokionez 14 urtetik goitikoen artean (%25,0), bereziki gazteen artean (%28,4), baita gazteen sedentismoari dagokionez ere (%27,5).


3. Osasunerako baliabideak

Komunitatean osasunerako aktiboak daude, hau da, osasuna eta ongizatea mantentzeko eta sortzeko pertsonak, komunitateak eta herriek duten gaitasuna indartzen ahal duten baliabideak (salutogenesia).

[→ Ikus eskualdeko aktiboen mapa](#)

4. Adierazleen laburpena

Ondoko irudian agertzen dira, adierazle sorta baterako, eskualdeko balioak (puntu gorria) Nafarroako batez bestekoaren aldean (barra bertikala) eta Nafarroako eskualde oinarritzkoen multzoaren aldera. Adierazleen deskribapen zehatzagorik nahi izanez gero ikus daitezke haien [banakako fitxak](#), Behatokiaren webgunean.



Adierazleen iturria: 1-2: Bizt. Mugimendu Nat.; 3: Zentsua; 4: Bizt. Aktiboaren Ink.; 5: Errenta Estat.; 6-8: Errollda; 10-12: Naf. Gazteen Ink.; 13: Bizi-Baldintzen Ink.; 14-15: Botika Prest.; 9, 16-19: Oin.Osasun Lag.; 20-21: Naf. Osasun Pub. eta Lan Osas. Inst.

Nafarroako Erriberagoieneko adierazleak, Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera (NEI). Irudian adierazten diren balioen kopurua: 7 balio, 3, 4 eta 13. adierazleetan; 6 balio, 10-12. adierazleetan.

* Nabarmen desberdinak ($p < 0,05$) Nafarroako emaitzatik (bizimoduaren, gaixotze-tasaren, osasun sistemaren eta heriotza-tasaren adierazleentarako egindako kontrastea).

1. Jaiotze-tasa gordina (%); **2.** Urteko ugalkortasun-tasa berariazkoa (%) 14-19 urteko ametan; **3.** 2. graduiko ikasketak burutu ez dituzten 20-24 urteko gazteen %; **4.** Langabetuen % biztanleria aktiboaren aldean, 4 hiruilekoko batez bestekoa; **5.** Etxeko guztien errentaren baturak pobreziaaren atalasetik behera egiten duenean, halako etxeetan bizi diren pertsonen % (kontsumo unitate bakoitzeko urteko diru-sarreraren medianaren %30, pertsonen banaketa hartuta. Pobreziaaren atalasea, 2015ean: 5.150 €); **6.** ≥ 65 urteko pertsonen %, 15-64 urteko pertsona guztien aldera; **7 eta 8.** Bakarrik bizi diren ≥ 80 urteko pertsonen %, adin horretan familiaren etxebizitzetan bizi diren guztien aldean; **9.** 170-190 egunetara partez edo osotara amagandik edoskitzen duten bularreko haurren %; **10.** Ohiko jardueran nahiz aisialdian jarduera fisiko urria edo batere egiten ez duten 14 - 29 urteko gazteen %; **11.** Azken 30 egunean kontsumo trinkoa edo betekada (*binge drinking*) egin duten 14-29 urteko gazteen % (4 EUE edo gehiago emakumeen artean, eta 5 EUE edo gehiago gizonezkoen artean, bi orduz); **12.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten 14-29 urteko gazteen %; **13.** Eguneroko tabakoa kontsumitzen duten ≥ 15 urteko pertsonen %; **14 eta 15.** Azken urtean ,talde hauetarikoren bateko 3 ontzi gutxienez kontsumitu dituzten pertsonen tasa doitu: N50B antsiolitikoak, N05C hipnotikoak eta lasaigarriak eta/edo N06A antidepresiboak (T. gordina: emakumezkoak 20,5 eta gizonezkoak 8,6); **16.** Obesitatearen prebalentzia doitu 0 - 5 urteko biztanlerian, OMEak haurren hazkunderako dituen patroien arabera definiturik (z-score ≥ +2); **17.** 2 motako diabetesa duten ≥ 20 urteko pertsonen prebalentzia doitu (T. gordina: 8,3); **18.** 2 motako diabetesa izanik, azken urtean hemoglobina glikosilatuaren neurketa (HbA1c) izan duen biztanleriaren %; **19.** Azken urtean hipertentsioa diagnostikatu eta tentsio arteriala neurtu zaion biztanleriaren %; **20 eta 21.** Pertsona bat egungo heriotza-tasen arabera ustez biziko den batez besteko urte kopurua.